



# etxahun zorigaiztokoaren historia

Joseba INTXAUSTI

Euskaltzaleok ba dugu zorionik oraingoan. Izan ere, ez gera beti hoinbestetan. Haritschelhar (hegoaldeko euskaldunek "Haritzelar" idatziko genuke) jaunak eman digu etsenplu onik bere liburu berriarekin. Hori da lanean jakitea! (1). Jakintza hitzetik hortzera, bapatean, egiteko ditugun ohitura zaharrak hautsi dizkigu hemen Haritschelhar Doktoreak. Liburu hau ez da pasadizoan egiten diren horietakoa. Horrialdez, mardul (bi tomoek, ba dituzte 1.300 horrialde); mihaketa luzez argitu dira Etxahun koblariaren historia-itzalak, Bordele-n 1969-an presentatu zen doktore-tesi honetan.

\* \* \*

Liburuaren lehen tomoa bi partetan banatua ematen da: lehenbizi, Etxahun gizona aztertzen du; gero, honen poeta lana. Piarres Topet, Etxahunia baserriko lehen semea zen, 1786-an Zuberoko Barkoxe-n jaioa. Etxahun deitu zitzaion, borda-etxearen izena jasoz. Piarres, dudarik gabe, igaro den gizaldiko koblari-bertsolaririk handiena izan da, gutik jakin du gutartean berak bezala giza-zorigaiztoa, zartaka eta larru gorri, kantatzen. Etxahun-en ezberhar eta poesia-etorriak elkartuta mamitu da bertsolari honen apartekotasuna. Hala ere —eta beharbada, horregatixe—, Etxahun, historia eta ipuin, batera izan da





(1) HARITSCHELHAR, JEAN: *Le poète souletin Pierre Topet-Etxahun (1786-1862). Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIX<sup>e</sup> siècle.* Société des Amis du Musée Basque. Bayonne, 1969. 584 horrialde.

ID.: *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etxahun.* "Euskera" aldizkariaren alea. Bilbao, 1970. 710 horrialde.

orain gutirarte, eta biok—historia eta ipuina, alegia—banatzen ahalegin du da Haritschelhar jauna. Langile honen argiz, Etxahun lainopetan izkutatua eguzkitaratzen joan zaigu.

Galdera asko zeuden erantzun eske, Piarres-en bizitza-kondaira egiterakoan: nolakoa zen bere sendia?, nor zen berak maitatu zuen nexka?, benetan giza-hiltzaile izan ahal zen?, zergatik eduki zuten hainbeste aldir presondegietan?, eta bere emazteaz, zer zen egia, zer gezurra? 1949-ez gerotik (Etxahun-en bertsoen argitalpen-urtea) ezaguna izan da gure literaturan Piarres-en nortasunaren enbata eta indarra: antzerkiak (P. Larzabal eta P. Bordazarrenak), nobelak (J. Etxaide eta P. Espilenak) zabaldu dute Euskal Herrian eta kanpotik Etxahun-en zorigatzaren berria. Baina, hori bai, beti Piarres-en benetako historia jakiteko geunden...

Haritschelhar-ek hartu du bere gain lan hau, hamar urteko lana. Udaletxe eta parroketako paperak mihatuaz, egunero zaharrak aztertuz, izkribauen berriak jasoz egin du. Luzea, zehazki egina, pontuz-pontu arre-

ta guziz burutua. Orain ba dakigu sei anaia-arreba izan zirena, eta ez bi, uste izan dugunez. Haurzaro-gaztarook ez zituen izan gozoak, eta amonagan eta maitatu zuen Maddi Rospide-gan bakarrik aurkitu zuen atsendenik. Honegandik seme bat ere izan zuen, eta hestualdian, Piarres-ek nahi zuen ezkontzaren kontra, osabak jabegaitza ukatu zion. Ordukoak ditugu pontu haiek:

**Oi! ene izatia dolerez be-**  
[therik!]

**Mündian ez ahal da ni**  
[bezain trixterik]

**Ni bezala maitiak traditü**  
[dianik,

**Habil Amodiua, hürrün**  
[ene ganik.

Maitearen agurraren ondotik, konponketa: emazte maitagabea ezarriko diote (1808). Ezkontzalagunak sei seme eman go dizkio 1821 artean. Napoleon-ek piztutako gerrateetara eramango dute Josepe jabegai berria; baina, hau desgertzean ere, ez du Piarres-ek dretxorik bereganatuko. Laister familia arteko haserreek desegin egingo dute baserria: Etxahunia-ko guraso-senideek Topetia bordara joango dira. Eta 1819-an, Tribunalen erabakiz, ja-

begaitzaren esperantzak ere galdu egingo ditu: Etxahunia-ren erdia du bakarrik bere.

Bainan ezbeharrak ardaldeka omen datoz. Emazteak ba du nonbait beste lagunik. Erreta bi-zi da gizona, herra eta gorrotoa borbor barnetik. Hegiaphal omen zen emaztearen maitalea. Eztabaida baten ondoren Ezkiule-ko hauzotar bat hiltzen du haizkoraz. Donapaleu-n presontegiratzen dute (1821), baina laister ekiten dio ihesbideari, berriz ere atzematen duten arte. Bi urtetarako kondenatuak, bost egiten ditu barruan. Bien bitartean, Piarres-ek dionez, emazteak izan ditu gorabeheratxoak tu gorabeheratxoak eta eta bestegandik haurdun izango da. Ezbehar-bide luze du oraingoan Piarres-ek: 1827-ko maiatzean barkoxetar bat hilda aurkitzen dute. Esamesak diotenez, Hegiaphal-en kontra botatako tiroz hil zen gizona... Harrez gero Etxahun seinatzen dute hiltzailetzat. Piarres beldur da eta ihes egiten du, mangan-tza-egarriz bere bertsoetan zera kantatuaz:

**Bestek eraman derik hik**  
[behar kolpia]

**Bena kubera dirok orano**  
[hartzia.

Gainera, egun haietan Hegiaphalenia-ko bordak su hartzen du. Bertso eta su, atzetik ditu, berriz ere, Piarres-ek jendar-mak. Sei hilabeteko gartzelaren ondoren, juzgatzten dute noizbait; baina ez zen makala gure Etxa-



hun: testigantza guzien kontra, "erugabetzat" ematen dute (1828). Lais-ter itzultzen da Barkoxera, baina herrian ez du inork maite eta guzien sorbaldak ditu gizonak hesi. 1831-ean aita hiltzean, erromes-bideari ekiten dio: damu da Etxahun, barkatzen die etsaiei. Erroma-ra doa sei hilabeteko ibilaldi luzean. Baina bihurtzean ere (1832), koblariak lehengo lepotik burua... Zehar-meharka guzien medioz, hamar urteren buruan, bereganatu ditu Etxahunia-ko lurrik gehienak. Ez zen aski, ordea, eta orain-goan galdu du Piarres-ek burua ere. Paper faltsoen bila hasten da. Maule-n anaia-ordeko bat hartzen du eta Navarrex-eko izkribauagana joaten da. Jean Topet anaia omen zenak kasik Topetia baserri osoa erregalatu zion Piarres-i, eskritura eginberriak zioenez. Ez jakin, ordea, zer etorri zitekeen honelako faltsokeriatik...

Anaiak, faltso gintza ezagutzean, Tribunaletara joko du (1842), eta Piarres Espainia-rako irten-go da, ihesi eta erromes. Bien bitartean (1843), Pabe-n, hamar urtetarako kondenatzen dute, eta semeak Etxahunia erosi egin beharko du berriz. Santiago-rako erromeria burutzean, bertsolaria semeagana itzuliko da, baina Josepek, semeak, atetan utziko du aita, ez honen bertso mingotsak entzun gabe.

Jendarmek usmatu dute Etxahun-en itzulera,

eta ba daramate berriz ere itzalpera. Larri da gizona, da daki hamar urteko epaia berri dezaio-ke-tela. Zer egin? Piarres-ek irudimena luze du, as-mamena bizkor. Mahain-burukoei, juezei, zoro da-goela frogatu beharko die. Nahiko poliki egiten du komeria Pabe-ko tribuna-laren aurrean erromes-jantzi eta guzi: hamar urtetarako lan behartuak, hiru urtetarako presondegi bihurtzen dira. Etxahun ez da kon-forme, zoro batentzat gehiegi bait da, nonbait. Gora jotzen du, eta azaroan Mont-de-Marsan hobeki egiten du oraindik zoroarena. Bi urtetaraino jeisten diote zigorra. Oraingo gartzelaldian emazteak ezkonbanatzea iristen du Tribuna-lengandik.

Libratzean, etxe-eske dabil koblaria. Jean-Pierre anaia hartzen du lehenik, elkarrekin haserretu arte. Halako batean, zori onik gabeko gau batean, norbaiten gaizki nahiak begi bat galera-zen dio; baina Tribunaletarako makurkeria galdu gabe. Iloba bat haraxe eramango du oraindik. Urte hauetan, eskale eta kobleri bidegaldu, Barkoxe inguruetan ibiliko da, 1856-*ez* gero Piarres bere semearen Ezkiule-ko etxean sartu arte. Hemen hilko da borrokalaria zaharra 1862-ko urtarrilaren 17-an.

\* \* \*

Hori zen gizona, baina nor eta nola gure

poeta eta koblaria? Lehenen tomoaren bigarren parte osoa eta bigarren liburukia bertsolariaren lana agertzeko egin ditu Haritschelhar jaunak. Hor daduzkagu haren bertso-gaiak, haren bertso-gintzaren teknikak. Gaia, gehienbat, Piarres bera da, Etxahun-en bizitza ez bait zen bertso-gai urria: oinazea, gorrotoa, barnerrea, etsipena darizkio bere bihotzari. Bertsoek mizto zorrotza dute gizar-teko itsuskerientzat; emakumea ez da azke-neko gaia, eta gogor jardungo da etsai guziekin. Inguruko herri-herrisketan kantatuko ditu kobla bizi hauek.

Etxahun-en lana tarteko dela, Haritschelhar-ek luze eta sakonki aztertzen du euskal bertso-gintza herrikoia lehenen tomoan (414-507 horrialde-*etan*). Eta hareago oraindik, bigarren liburuki lodia bertso horiek banaka-banaka aztertze-ko egiten du: zazpirehun eta gehiago horrialde halajain! Azterketa hau osatzeko, bide eta era zehatzak darabilzki. Gure lanetarako, euskaltzaleoi erakus dezaiguten zera hemen argi ageri den metodologia da. Ez dugu sekula ezer hirmorik egingo, jakintza bakoitzari dagozkion lan-bideak zehazki ez darabilz-kigun bitartean. Bestelakorik pentsatzea umeke-ria litzake. *Liburu hone-tan*, Etxahun koblari bikain agertzen bazaigu, kritikaria ez da atzera gelditu: halako bertsolariari, honelako kritikoa!